

# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN GIDA 2019-20

Gurasogunek 2019/20 ikaturterako antolatu dituen Eskolaz kanpoko ekintzen gidatxoa eskaintzen dizuegu. Gida behin behinekoa da, eta ikuspuntu berezi batetik eginda dago, izan ere, ikastetxean transizio garaia bizitzen ari gara familia-elkarteari dagokionez.

2017-18.eko ikasturtean egindako eskolaz kanpoko ekintzei buruzko batzar monografikoaren ondoren, familiek bertan adostutako balore era jarraibideak sustatzeko manifestu bat sortuko da, kirol zein kirolaz kanpoko ekintzetan oinarri izango dena. Beraz, hauek kontutan izan beharko dira jarduera guztietarako, kirolezkoa izan zein ez.

Elkartearen webgunean jarduera motak, ordutegiak, eta prezioen taulak agertzen dira: <http://gurasogune.eus>.

Aipaturiko gidan honako puntuak jorratzen dira:

**0. Eskolaz kanpoko ekintzetan izena emateak, aipaturiko jarraibideak eta manifestua onartzea suposatuko du. Baita 2019/20rako ikasturterako indarrean egongo diren arauak errespetatuko direla ere suposatuko du.**

**1. Gurasogunek antolatutako eskolaz kanpoko edozein ekintzetan izena emateko bazkide izatea beharrezkoa da.**

Bazkidearen kuota urtean behin ordaitzen da (urrian) eta familiako 45 eurokoa da.

Alta urtero berritzen da automatikoki. Baja hartu nahi duenak idatziz adierazi beharko du, eta elkarteari zuzendu email bitartez [gurasogune@andramari.net](mailto:gurasogune@andramari.net).

**2. Eskolaz kanpoko ekintzen ordainketa helbideratutako banku-ordainagiri bidez egingo da Apymak emandako kontu-zenbakian, hilero lehengo astean.**

Bazkide izateko [imprimakia](#) hementxe agertzen da, baita bazkide izanda banku-informazioa edota beste edozein datu aldatu behar baduzu ere.

### **3. Familiekin harremanetan jartzeko ikastetxeak ikasleei emandako posta elektronikorako kontuak erabiliko dira.**

Gurasogunek darabilen helbidea eskolaz kanpoko gaietarako hauxe da:

[extraescolares@andramari.net](mailto:extraescolares@andramari.net).

Eskolaz kanpoko ekintzek gestio-lan handia eskatzen dute. Beraz, eskertzekoa litzateke eskolaz kanpoko talde bakoitzeko familia bat arduratuko balitz. Familia horrek informazioak eta zalantzak kudeatuko lituzke eta gero Gurasoguneri esango lioke, banan-banan egin beharrean.

### **4. 2019/20.eko jarduetarako izen ematea bakarrik online bete ahalik izango da, interneten igotako imprimaki baten bitartez. Imprimakia email bidez bidali beharko da hilak 17tik aurrera hilak 20arte (gauerdirate).**

### **5. Gehienez 3 ekintza aukera ditzake ikasle bakoitzak.**

4 jarduera aukeratzen dutenen artean, aukeratutako ekintzen ordena kontutan hartuko da lehentasuna emanez lehenengo ekintzei. Laugarren jarduera da soilik hartuko da kontutan aurreko 3 jardueretako batetan plazarik lortu ez badu.

### **6. Kirol ekintzetarako, nahiz eta ikasleek aurretiko izen ematea ekainean egin bazuten ere, ezinbestekoa da orain berriro egitea.**

### **7. Inskripzioen trataera:**

- Inskripzio guztiak onartuko dira, eta ez da lehentasunik emango hurrenkerari.
- Ekintzaren batean ikasleen gutxieneko kopururik ez balego, hura mantentzen saiatuko da; beti ere alde ekonomikoa edota beste irizpide batzuk kontutan hartuz (adibidez, kirol talde batean jokalaria gutxieneko kopurua). Irizpideok ez betetzekotan, ez da aurrera aterako.
- Hiruhileko bakoitzean proposatutako ekintzetan ahalik eta ikasle gehienek parte hartzea saiatuko da. Horregatik, gehieneko kopurua gainditu ezker, ordutegia eta egunak aldatu litezke: Gehienezko kopurua gainditzen den ekintzetan beste egun edota ordu batzuk gehitzea posible izan liteke, beti ere hornitzailearen begi onez, eta ikasleen familiek ere horrela erabakitzen badute. Gertatzekotan, elkarteak kudeatuko du egoera hori eta familiei komunikatuko die adostasun batera ailegatzeko asmoarekin.

- Adostasunik ez balego edota leku/ordu librerik ez balego, zozketa egingo da ikasleen artean; eta plazarik gabe geratzen direnak itxaron zerrendan egongo dira.

## **8. Bajak**

Eskolaz kanpoko ekintzak urriaren 1ean hasiko dira eta maiatzaren 31n bukatuko dira. Ekainean bakarrik orduak berreskuratu behar diren jarduerak izango dira.

Bajak idatziz komunikatu beharko dira hurrengo emailera [extraescolares@andramari.net](mailto:extraescolares@andramari.net), **hilabetea bukatu baino 10 egun lehenago**, hurrengo hilabeterako indarrean egoteko.

10 egun horien barruan ez lirateke opor egunak sartuko, baja horiek kudeatzeko ez legoke inor ikastetxea itxita egongo litzatekeelako.

Bajek eragin handia izaten dute ekintzak aurrera eramateko, bai ekonomikoki, bai jarduera normaltasunez garatzeko.

Eskatutako bajek eragina izango balute ikasleen gutxieneko kopuruan, kasuak banan-banakako aztertuko dira ekintza hori bertan behera uzten den erabakitzeko.

## **9. Eskolaz kanpoko kirolekoetarako taldearen ordezkariak**

Taldeka egiten diren lehiaketako kirol ekintza guztietan "Taldekoko lehen eta bigarren ordezkariak" egon behar dira, zeinak kirolarien gurasoak izan behar diren. Horiek kirol koordinatzailearekin harremanetan egongo dira, kirol taldeen martxa hobetzeko eta beharrak asetzeko.

Aipatutako rola betetzen ez badira, taldeek ezin izango dute izena eman lehiaketan.

## **10. Iradokizunak eta proposamenak**

Ekintza berrietarako proposamenak, indarrean dauden ekintzei buruzko iradokizunak edo hobekuntzak:

- **emailez** bidal daitezke [extraescolares@andramari.net](mailto:extraescolares@andramari.net) edo,
- **elkartearen edozein bileretan**.